

Azkeneko hilabete hauetan gure aberrian, Euskadin halebria, Autonomiaz, Autonomi Estatutuaz hobeki esan, besterik ez da mintzatzzen. Dirudienez, eta harriduraz, Autonomi Estatutua ez zaie, egun, estatualist alderdiei bakarrik interesatzen, espainol eta "euskal" burgesiari (oligarkia ere barne delarik) eta "abertzale" alderdiei baita.

Orain arte, independentistatza jotzea burua aski zen abertzaletasuna adierazteko, nazio arazoari irtenbide egokia ematako. Egun, ba dirudi abertzale izateko Autonomi Estatutu baten alde borrokatu behar dugula, Euskal Parlamentariak eta KASekoek diotenez, zeren eta independentzia, beren ustez, pausoz pauso lortu behar bait dugu, errealistak izan behar bait dugu, radikalak ez bait dugu izan behar.

Baina ba da garaia, behin betirako, abertzaletasunari, hots Independentziari, dagozkion zehaztasunak eta mugak adierazi eta inprintzeko. Hau da, nolako independentzia nahi dugun eta honen alde borrokatzeak zer suposatzen duen aztertu eta sakontzea.

Euskal independentzia ezin daiteke uler gauza abstratu bat bezala. Gure usteetan, benetako independentzia Euskal Langileena da, zeren eta Euskal Herriaren ere, beste gainontzeko nazioetan bezala, klase borroka ba dugulako. Gure nazioaren ere, Langileriaren aurka doan eta bere errepresentatibitate lapurtu nahi duen sektore sozial bat ba dela, Euskal Birgesia eta bere erakunde politikoak halebria, aitortu behar dugu argi eta



garbi. Hemen ere langileak eta ugazabak bereizi behar ditugu; zapalduak eta zapaltzaileak; zuzenduak eta zuzentzaileak; espetxeratuak eta espetxeratzailak; autoritatearen mendekoak eta autoritateak; nazioaren nortasunaren aldekoak eta nazioaren nortasunaren kontrakoak...

Euskal Independentziaren alde borrokatzeak, iraultza, Euskal Iraultza, egiteko prest gaudela suposatzen du, edozein zapalkuntza desagiteko prest. Nazio, herri eta herritarren nortasuna egin eta gorde nahi dugula; herriaren auto-organizazioa eta protagonismoa nahi dugula; gure autojestioa eta ordezkartza ez dugula alderdi eta zuzendarien esku utzi nahi; askatasun osoa eta integrala lortzeko prest gaudela; gure etsaien aurka biolentzia iraultzailea erabiltzeko

prest gaudela.

Eta guzti hau lortzeko bideratzeko, pausoz pauso errealtatea egiteko Autonomi Estatutuak ez digu baterre lagunduko eta posibilitatuko zeren eta Autonomi Estatutu batek erakarriko diguna hauxe izango da: Euskal Langileen dependentzia, zapalkuntzaren eraberritze bat, nazio kontzientzi burgesa, auto-organizazio eta herri protagonismaren baztertzea.

Autonomi Estatutu baten alde "Borrokatzeak" (borrokatzea baino oligarkiari eta euskal burgesiari interesatzen zaien Autonomi Estatutua onartzea, nahiz eta Estatutu aurrerago bat proposatu) hauxe suposatzen du:

—Gobernuak proposaturiko erreforma onartzea, esatez ez bada, egitez.

—Negoziaketa eta pak-

tu bat gobernu zentralarekin.

— Alderdien sutituis-moa eta protagonismoa.

— Hauteskundeetako jokoa jarraitzea.

— Gobernuak proposaturiko burges jokabidea onartzea, Parlamentu eta "tira y afloja"-ko politikan sartzea.

Ba dirudi zenbait, Aurborrokatzeko prest dela; hala nola Euskadiko Ezkerra, HASI, LAIA(bai).. Nire ustez jokabide hori infantilista eta sinplista da, zeren eta hauteskundeetan ikusi genuenez politikarik "errealistena" PSOE eta PNV-rena da. Berauekin, edota beraien aurka nahi baduzue, konpetitza, beren jokua arauetan sartuz, utopikoa da. Beste aldetik, politika honek adierazten duena hauxe da: protagonismoa herriari ematea baino, diotenez, herriari ulertaraztea bera ari dela borrokatzen autonomi hori lortzeko. Baina herriari esan gabe, autonomi hori oligarkiak, euskal burgesiak eta alderdiek behar dutela beren interesak zaintzeko. Eta hau, manipulatzea eta alienatzea besterik ez da.

Azkenik, Autonomi Estatutuaren aldeko, hauteskuntzan egin zuten bezala, bost axola omen zaie egungo langilegoaren egoera: langabezia, kaleratzea, espeditenteak, presoak (preso sozialak ere), asanbladen legalitate eza, indar errepresiboen jokaera... Noski arazo guzti hauk gure benetako eta egunoroko arazoak, ez ditu Autonomi Estatutuak konpontzen lagunduko Euskal Herriko langile independentziak beste jokabideak eskatzen ditu.